


FILOSOFIAREN HISTORIA AURKEZPEN OROKORRA



Irakasgai honen **helburua orokorra** zera da:

Mendebaldeko kulturaren eragina izan duten korronte filosofikoak gaineko ikuspegi orokor bat eskuratzea.

Inportantea da ikasgaiaren izenari erreparatzea zera ikusteko:

- Alde batetik, filosofiari dagozkion hainbat kontzeptu menperatu behar dira.
- Bestaldetik, historian zehar nola sortu eta garatu diren.

Beraz, eduki filosofikoak aztertu eta ikasi behar dira baina betiere historiari lotuta.

Lan hori guztia lagungarria izan daiteke gure gaurko gizartean aintzat hartzen diren hainbat balio eta jarrera nondik eratortzen diren jakiteko.

Horren inguruan hainbat galdera argitzeko lagungarria izango da:

Zergatik da oso inportantea gure artean zientziaren eskutik lortutako ezagutza? Zergatik sortu eta garatu da ateismoa gure artean? Zergatik gure gizartean aintzat hartzen ditugun askatasuna, tolerantzia, berdintasuna eta horrelako balioak?

Irakasgai honetan proposatzen diren edukiak aztertzeko egin behar den ibilbidean hiru gai izango dira ikusi beharrekoak, batez ere:

- Ezagutza eta zientzia:** Esan bezala, historian zehar horren inguruan planteatu diren galdera nagusiak eta galdera horiek erantzuteko saiakerak.
- Errealitatea:** Zer da errealitatea? Zer da existitzen dena?
- Etika eta Politika:** Gai moral eta politikoen inguruan historian zehar egin diren planteamendu orokorrak.

Gai horiek hainbat filosofok izan zuten pentsamenduan ikusiko ditugu: PLATON, ARISTOTELES, TOMAS AQUINOKOA, RENÉ DESCARTES, DAVID HUME, IMMANUEL KANT, KARL MARX eta FRIEDRICH NIETZSCHE.

Irakasgai honetan eskuratutako ezagutza lagungarria izan daiteke goi mailako ikasketetan, gizarte-zientziei lotuak diren ikasketetan, batez ere:

- Historia
- Zuzenbidea
- Zientzia politikoak
- Soziologia
- Ekonomia
- Kazetaritza

Nahi baduzu, ikusi irakasgai hau ikasteko dugun bloga:

<http://jakinzalea.blogspot.com.es/>